

Aseguru produktuari buruzko informazio dokumentua

Enpresa: OCCIDENT GCO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, SOCIEDAD UNIPERSONAL

Produktua: etxeko aseguria

Erregistratua: Espainian. Aseguru erakundearen baimen zk.: C0468

Aseguru produktuari buruzko kontratu aurreko eta kontratu informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da, hala nola informazio oharrean, baita aseguru kontratuaren baldintza orokorrak, partikularrak eta, hala badagokio, bereziak ere.

Zertan datza aseguru mota hau? Karabanen eta Modulu Estatikoen Aseguria aukerarik onena da lasai igarotzeko aisialdiak, zure familia eta karabana edo modulua ondo babestuta egoteak ematen duen segurtasunaz. Gainera, zerbitzu eskusibo batzuk ere sartzen dira aseguruaren barnean, bizitza askoz errazagoa izan dadin gure aseguratuentzat: besteak beste, Etxeko Laguntza 24 orduz, Aholkularitza Juridikoa eta BrikoEtxe zerbitzua.



Zer dago aseguraturuta?

Kontratugileak asegura ditzakeen aseguru estalduren eta arrisku nagusien laburpena, kontratuan aukeratutako modalitatearen arabera.

- ✓ Sutea eta osagarriak.
- ✓ Kalte atmosferikoak.
- ✓ Kalte atmosferikoak karabanen erantsietan edo sukalde dendetan.
- ✓ Inpaktua, bandalismoa eta beste kalte material batzuk.
- ✓ Urak eragindako kalteak eta erantzukizun zibil eratorria.
- ✓ Ezbeharrak sortutako gastuak.
- ✓ Kalte elektrikoak.
- ✓ Lapurreta eta ebasketa.
- ✓ Karabanaren edo modularen beraren gaineko erantzukizun zibila.
- ✓ Apurketak: kristalak eta ispiluak, komun ontziak, sukalde eta komun gainekoak eta bitrozeramikazko plakak.
- ✓ Etxeko laguntza.
- ✓ BrikoEtxe zerbitzua.
- ✓ Erreklamazio eta defentsa juridikoa.

Eta Occidenten bezeroa izateagatik, kortesiazko zerbitzu hauek daude eskuragarri:

- ✓ Telefono bidezko aholkularitza juridikoa.
- ✓ Telefono bidezko orientazio medikoa.



Zer ez dago aseguraturuta?

- ✗ Kontratuaren baldintza orokorretan edo partikularretan sartu gabeko edozein gastu edo estaldura.



Badago murrizketarik estalduran?

- ! Kontratuak zehazten du zer sartzen den estaldura bakoitzean, baita babesetik kanpo gelditzen diren kasu batzuk ere. Nolanahi ere, arau orokor gisa, kontuan izan behar da aseguruak inoiz ez dituela bere gain hartuko aseguratuaren asmo txarreko egintzak, ondasunen higadura normala, berezko akatsa edo kontserbazio akastuna, agintari publikoek hondamenditzat edo hondamen nazionaltzat jotako gertaerak, eta lur hondoratzeak edo luiziak.



Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren kontratugileak edo asegurudunak kalteak jakinarazi behar dizkio konpainiari, gorde egin behar ditu ezbeharraren hondar eta arrasto guztiak, eta kontuz ibili behar du kalte gehiago gerta ez dadin.

- Lapurreta edo ekintza bandalikoen kasuan, deklaratu egin behar du poliziaren aurrean, lapurreta edo ekintza gertatu eta hurrengo berrogeita zortzi orduetan.
- Aseguruak bere gain hartutako erantzukizun bat sortzen duten gertaeretan, berehala jakinarazi behar zaizkio konpainiari aseguratuak jasotako abisu eta zitazio guztiak.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzeko unean eta kontratuan adierazitako ordainketa moduaren arabera. Kontratua luzatzen bada, kontratua berritzearen hasiera datan. Banku helbideratze edo kreditu/zordunketa txartel bidez ordain daiteke.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Behin lehen ordainketa eginda, kontratuaren “Aseguruaren iraupena” atalean adierazitako orduan eta egunean hasi eta amaituko da estaldura.



Nola desegin dezaket kontratua?

Aseguru erakundeari bidalitako jakinarazpen idatziaren bidez, abian den aseguru aldia amaitu baino hilabete lehenago gutxienez.
